



BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA, 2021eko azaroaren 18koa, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendariarena, gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzetarako deialdia ebazten duena (2021-2022ko ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko irailaren 8ko Aginduak gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzetarako deia egiten zuen 2021-2022 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.

Agindu horren 10. artikulua araberak, eskabideak egiaztatu ostean, emandako dirulaguntzei buruzko behin-behineko ebazpena emango du Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak; bertan, ikasleen identifikazio-datuak eta emandako zenbatekoak adieraziko ditu. Horretaz gain, ukatutako dirulaguntzen zerrenda ere sartuko du, ukatzeko arrazoia adierazita. Ebazpenaren jakinarazpena argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, honako web-helbide honetan: <https://euskadi.eus>.

Aurkeztutako eskaera-espedienteak egiaztatu ostean,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei behin-behineko diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei behin-behineko diru-laguntzak ukatzea.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei behin-behineko diru-laguntzak ukatzea. Ikasle horiek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuten unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2020-2021 ikasturteko deialdian (eskola-materialen osagaian). Errekurtsio horren ebazpenaren arabera diru-laguntza hau lortuko dute ala ez.

Laugarrena.- Eskabide bakoitzari esleitutako zenbatekoa behin-behinekoa da, eta aurkeztutako alegazioak ebaztearen baldintzapean egongo da.

Bosgarrena.- Emango den guztizko diru-kopuruak aurrekontua ez gainditzen du (2.000.000,00 euro). Lehen aipatutako Aginduaren 5. artikulua araberak, eskatzaile bakoitzarentzako laguntza berrehun (200) euro izango da gehienez, eta muga izango da gailu bakoitzaren fakturaren bidez justifikatutako diru-kopurua.

Seigarrena.- Eskatzaileek hamar egun izango dituzte, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, egokitzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko agindua ematea. Argitalpen horrek jakinarazpenaren efektua izango du hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 18an

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

AMAIA AGIRRE PINEDO

Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria



ERANSKINAK

1.ERANSKINA: EMANDAKO DIRULAGUNTZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA.

2. ERANSKINA: UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA.

3.ERANSKINA: UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA AURKEZTU ZUTEN UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA – LAGUNTZETARAKO 2020-2021 IKASTURTEKO DEIALDIAN (ESKOLA-MATERIALEN OSAGAIAN)